**JARDUERA COVID-19RA EGOKITZEKO PLANA**
PLAN DE ADECUACIÓN DE LA ACTIVIDAD AL COVID-19

| | |
|---|---|
| **MEDIDAS:**<br>**Control y prevención de la transmisión**.<br><br>Las personas participantes y sus tutores legales deberán responsabilizarse de su situación particular frente al COVID-19, de tal forma que si alguno presenta sintomatología asociada con el COVID-19 no acudirá y contactará con la persona responsable de su actividad (coordinadora de "Bizilabe").<br><br>Las personas responsables de la actividad velarán por la seguridad de la actividad mediante declaración de salud a la entrada en las instalaciones y el adecuado cumplimiento de todos los protocolos y normas de seguridad establecidos.<br><br>Se reforzarán los mensajes y cartelería recordando los comportamientos y distancia de seguridad, medidas de higiene, etc.<br><br>**Cumplimiento de medidas personales de higiene y prevención obligatorias**<br><br>Todas las personas participantes de la actividad así como el monitorado, tendrán a su disposición permanentemente en el lugar de la actividad y en lugares comunes (entradas, aseos, pasillos, etc.), agua, jabón y papel para el secado de manos. Asimismo contarán con geles hidroalcohólicos, para la limpieza de manos, así como otros viricidas para la limpieza de los elementos que utilicen durante la actividad.<br><br>En todos los casos se garantizará el cumplimiento de protocolos de seguridad (medidas personales de higiene y prevención obligatorias).<br><br>Se desarrollará una propuesta clara de medidas disciplinarias en caso de incumplimiento, que serán las de aplicación que figuran en el convenio de intervención social de Bizkaia o Gipuzkoa:<br>a) Faltas leves: El retraso y negligencia en el cumplimiento de sus funciones, así como la indebida utilización de los locales, materiales o documentos de la organización, salvo que por su manifiesta gravedad, | **NEURRIAK:**<br>**Transmisioa: kontrola eta prebentzioa.**<br><br>Parte-hartzaileek eta haien legezko tutoreek hartuko dute COVID-19 gaitzarekiko norberaren egoeraren erantzukizuna; horrenbestez, norbaitek COVID-19 gaitzarekin zerikusia duen sintomaren bat baldin badu, ez da Bizilabera bertaratuko, eta jardueraren arduradunarekin ("Bizilabe" koordinatzailea) jarriko da harremanetan.<br><br>Jardueraren arduradunek zainduko dute jarduera segurua dela; horretarako, osasun-adierazpena egingo dute instalazioetan sartu aurretik eta ezarritako segurtasun-protokolo eta neurri guztiak behar bezala beteko dituzte.<br><br>Mezuak eta kartelak jarriko dira, segurtasuneko jokabideak eta tarteak, higiene-neurriak eta antzekoak zein diren gogorarazteko.<br><br>**Nahitaezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalak betetzea.**<br><br>Ziurtatutako da jarduera gauzatuko den lekuan eta leku komunetan (sarreretan, komunetan, korridoretan, etab.) pertsona guztiek une oro eskuragarri dituztela ura, xaboia eta eskuak lehortzeko papera. Era berean, eskuak garbitzeko gel hidroalkoholikoak eta beste biruzida batzuk izango dituzte eskura, jarduera bitartean erabiliko dituzten elementuak garbitzeko.<br><br>Beti bermatuko da segurtasuneko protokoloak betetzen direla (nahitaezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalak).<br><br>Ez-betetzeen kasuan diziplina-neurrien proposamen argia garatuko da. Neurri horiek Bizkaiko edo Gipuzkoako gizarte eskuhartze sozialeko hitzarmenean agertzen direnak izango dira:<br>a) Hutsegite arinak: eginkizunak betetzean izandako atzerapena eta zabarkeria, bai eta erakundearen lokalak, materialak edo dokumentuak behar ez bezala erabiltzea ere, salbu eta horien |

| | |
|---|---|
| pueda ser considerada como falta grave.<br>b) Faltas graves: La desobediencia a las instrucciones de sus superiores en materia de su trabajo, con perjuicio para la organización o a las personas usuarias.<br><br>Y las sanciones que serán de aplicación en cada caso serán las siguientes:<br>a) Por falta leve: amonestación verbal o escrita.<br>b) Por falta grave: suspensión de empleo y sueldo de 3 a 14 días. | larritasuna dela-eta falta larritzat jo daitekeena.<br>b) Hutsegite larriak: arduradunen jarraibideei men ez egitea, erakundeari edo erabiltzaileei kalte eginez.<br><br>Eta kasu bakoitzean honako zehapen hauek aplikatuko dira:<br>a) Hutsegite arinagatik: ahozko edo idatzizko kargu-hartzea.<br>b) Hutsegite larriagatik: enplegua eta soldata etetea 3 egunetik 14 egunera bitartean. |
| Las faltas leves prescribirán a los diez días; las graves, a los veinte días, y las muy graves, a los sesenta días a partir de la fecha en que la organización tuvo conocimiento de su comisión y, en todo caso, a los seis meses de haberse cometido. | Falta arinak hamar egunera preskribatuko dira, larriak, hogei egunera eta oso larriak, hirurogei egunera, erakundeak faltaren berri izan zuen egunetik zenbatzen hasita, eta, nolanahi ere, falta egin eta sei hilabetera. |
| **Inscripción en las actividades.** | **Jardueretan parte hartzeko izen-ematea.** |
| La inscripción se ha realizado on-line a través de la página web de Bizilabe: www.bizilabe.elhuyar.eus | Izen-ematea online egin da, Bizilabeko webgunearen bitartez: www.bizilabe.elhuyar.eus |
| **Adecuación y reorganización de las actividades presenciales.** | **Jarduera presentzialak egokitzea eta berrantolatzea.** |
| Para evitar aglomeraciones, la zona de entrega y recogida estarán debidamente señalizadas y se realizarán de forma escalonada. Tanto las familias como las y los jóvenes deberán llevar mascarilla y en todo momento seguirán las indicaciones del coordinador/a de la actividad, para posibilitar el cumplimiento de las medidas de prevención y distancia social interpersonal. | Jende-pilaketak eragozteko, gazteak utzi eta jasotzeko eremuak behar bezala adierazita egongo dira eta txandaka egingo dira. Familiek eta gazteek maskara jantzita eduki beharko dute eta jarduneraren koordinatzailearen jarraibideei kasu egin beharko diete, prebentzioko neurriak eta pertsonen arteko distantzia-neurriak bete ahal izateko. |
| A continuación, los y las jóvenes accederán, de uno en uno, según les indique la coordinadora, se lavarán las manos con gel hidroalcohólico y se dirigirán a esperar al resto del grupo en la zona asignada. | Jarraian, koordinatzaileak adieraztean, gazteak banan-banan sartuko dira, eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbituko dituzte eta taldeko gainerakoei itxarongo diete esleitutako eremuan. |
| Los desplazamientos hasta el lugar de celebración deberán ajustarse a las condiciones prescritas para la ciudadanía en general. | Jarduera gauzatuko den lekurako joan-etorrietan, herritar ororentzat xedatuta dauden arauak bete beharko dira. |
| Los grupos de Bizilabe contarán con un límite establecido por las autoridades competentes en cada momento, considerando siempre las características de cada espacio y la especificidad de cada grupo. | Bizilabeko taldeak autoritate eskudunek une bakoitzean ezarritako parte-hartzaile kopuruan oinarrituta osatuko dira, betiere gune bakoitzaren ezaugarriak eta taldearen espezifikotasuna kontuan hartuta. |

| | |
|---|---|
| Debido a las circunstancias actuales y en la medida que sea posible, se respetarán dentro de cada grupo las distancias de seguridad y se evitarán las actividades de contacto estrecho y continuado. | Egungo zirkunstantziak direla eta, ahal den neurrian, talde bakoitzaren barruan segurtasun distantziak errespetatuko dira eta gertuko etengabeko kontaktua duten jarduerak egitea saihestuko da. |
| Se utilizará material de trabajo diferenciado para cada grupo, evitando compartir material de laboratorio, herramientas, ordenadores y demás elementos, o bien asegurando, en caso de que tengan que compartirse entre grupos, una limpieza y desinfección exhaustiva previa a cada uso. | Lan-material bereizia erabiliko da talde bakoitzerako, laborategiko materiala, erremintak, ordenagailuak eta gainerako elementuak partekatu gabe, edo, konpartitu behar izanez gero, erabilera bakoitzaren aurretik garbiketa eta desinfekzio sakona egingo da. |
| En las actividades en espacios cerrados, se realizarán subgrupos. A cada subgrupo se le asignará su propio espacio que no compartirá con otros grupos. Asimismo, y en la medida de lo posible, las actividades e interacciones se realizarán siempre por las mismas personas que componen cada uno de estos subgrupos. De este modo evitaremos la aglomeración y contacto entre los participantes. Los espacios cerrados para las actividades son suficientemente amplios y estarán debidamente ventilados. | Espazio itxietako jardueretan azpitaldeak egingo dira. Azpitalde talde bakoitzari bere espazioa esleituko zaio, beste talde batzuekin partekatuko ez duena. Era berean, eta ahal den neurrian, azpitalde horietako bakoitza osatzen duten lagun berberek egingo dituzte beti jarduerak eta interakzio-ekintzak. Horrela, partaideen pilaketak eta kontaktua saihestuko ditugu. Jardueretarako espazio itxiak behar adina zabalak dira eta behar bezala aireztatuta egongo dira. |
| Las actividades que se realicen en espacios cerrados, estarán sujetas a lo establecido en la Orden de 10 de junio de 2020 y al Anexo VI de dicha orden «Equipamientos y medidas de higiene y prevención obligatorias para instalaciones de ocio educativo juvenil». | Leku itxietan egingo diren jarduerak, 2020ko ekainaren 10eko aginduan xedatutakoa eta VI. eranskinean agertzen dena («Higieneko eta prebentzioko nahitaezko ekipamenduak eta neurriak, haurren eta gazteen hezkuntza-aisialdiko instalazioetarako») beteko dute. |
| La empresa u organización que realice el servicio de “Bizilabe” se coordinará con el Ayuntamiento para evitar aglomeraciones en los espacios públicos y hacer un uso ordenado y seguro de los mismos. | “Bizilabe” aurrera eramango duen enpresa edo erakundea, Udalarekin koordinatuko da, espazio publikoetan jende-pilaketak eragozteko eta hauexek modu ordenatuan eta seguruan erabiltzeko. |
| **Los monitores y monitoras como responsables de los grupos de actividad.** | **Begiraleak, jardueran parte hartzen duten taldeen arduradunak diren aldetik.** |
| Los participantes se organizarán en grupos de hasta quince personas, incluidos los monitores y monitoras. Esa persona responsable velará por el cumplimiento de las medidas de distanciamiento social y evitará aglomeraciones. Controlará comportamientos y equipos sanitarios, y distribuirá mascarillas a las personas participantes que no dispongan de ellas en | Parte-hartzaileak gehienez ere hamabost laguneko taldetan antolatuko dira, begiraleak barne. Arduradun horrek zainduko du urruntze sozialeko neurriak betetzen direla eta, horrez gain, jende-pilaketak eragotziko ditu. Kontrolpean izango ditu jokabideak eta ekipamendu sanitarioak eta maskara ez duten parte-hartzaileei maskarak banatuko dizkie, |

| | |
|---|---|
| los términos que establezcan las recomendaciones vigentes de las autoridades sanitarias.<br><br>Se proporcionará a los monitores y monitoras formación específica y actualizada sobre prevención y protección ante el COVID-19, las medidas y protocolos específicos que se implanten, prevención de riesgos laborales, adquisición de habilidades sociales y gestión emocional y educación medioambiental, entre otras. En este sentido, todos los monitores y monitoras que formen parte de "Bizilabe" han participado en la charla ofrecida por Gobierno Vasco percibiendo una titulación de dicha formación. Esta formación ha sido elaborada o impartida por personal técnico de la autoridad sanitaria correspondiente, o al menos supervisada por la misma.<br><br>Además recibirán una formación previa al inicio de la actividad en materia de prevención de riesgos laborales, recordando las medidas a adoptar en materia de COVID-19, además de una formación en habilidades sociales, todo ello proporcionado por personal de Gardabera S.L.<br><br>En el caso de que los monitores o monitoras no cuenten con esta formación específica, la organización deberá proporcionar personal con esta formación sanitaria durante el transcurso de la actividad.<br><br>**Desarrollo de la actividad.**<br><br>Información y comunicación previa a la actividad "Bizilabe"<br><br>- Documento aclaratorio de las medidas de prevención que se tomarán en materia de higiene y seguridad durante el desarrollo de la actividad.<br>- Documento de adecuación de la actividad al COVID-19 .<br>- Protocolo de prevención y actuación en caso de riesgo de contagio o de contagio positivo.<br>- Documento de aceptación de condiciones de participación, obligación de información y consentimiento informado. | osasun-alorreko agintariek emandako gomendioetan (unean-unean indarrean daudenak) adierazi bezala.<br><br>Begiraleei COVID-19rekiko prebentzioari eta babesari buruzko prestakuntza espezifikoa eta eguneratua emango zaie, ezartzen diren neurri eta protokolo espezifikoak, laneko arriskuen prebentzioa, gizarte-trebetasunak eskuratzea eta kudeaketa emozionala eta ingurumen-hezkuntza, besteak beste. Ildo horretan, Bizilabe osatzen duten begirale guztiek parte hartu dute Eusko Jaurlaritzak eskainitako hitzaldian eta prestakuntza horren titulazio bat jaso dute. Prestakuntza hori dagokion osasun-agintaritzako teknikariek prestatu edo eman dute, edo, gutxienez, agintaritza horrek gainbegiratuko du.<br><br>Gainera, laneko arriskuen prebentzioaren arloko jarduera hasi aurretik prestakuntza jasoko dute, COVID-19ren arloan hartu beharreko neurriak gogoraraziz, eta gizarte-trebetasunei buruzko prestakuntza ere jasoko dute, Gardabera SLko langileek emana.<br><br>Prestakuntza hori osasun-alorreko agintaritzako teknikariek prestatu edo emango dute, edo, behintzat, haiek berek gainbegiratutakoa izango da.<br><br>Begiraleek prestakuntza espezifiko hori eduki ezean, antolatzaileak osasun-alorreko prestakuntza hori duten langileak jarriko ditu, jarduerak iraun bitartean.<br><br>**Jardueraren garapena.**<br><br>"Bizilabe" gauzatu aurretik informatzea eta jakinaraztea<br><br>- Jarduerak gauzatu bitartean higienean eta segurtasunaren alorrean zer prebentzio-neurri hartuko diren argi eta garbi azaltzen dituen dokumentua<br>- Jarduera COVID-19ra egokitzeko planaren dokumentua.<br><br>- Prebentziorako eta jarduteko protokoloa, COVID-19 gaitzarekin kutsatzeko arriskua dagoenean, edo kutsatutakoan.<br><br>- Parte-hartzeari, informatzeko betebeharrari eta baimen informatuari buruzko baldintzak onartzen direlaren dokumentua. |

Durante el desarrollo de la actividad.

Los y las monitoras velarán por la seguridad de la actividad mediante declaración de salud a la entrada en las instalaciones y el adecuado cumplimiento de todos los protocolos y normas de seguridad establecidos.

El monitor o monitora recordará las medidas preventivas implantadas e instará a que se cumplan por el bien y seguridad de los demás (no tocar superficies, mantener la distancia de seguridad, uso de mascarilla, lavarse las manos frecuentemente etc.), cómo hacer uso de las instalaciones.

El monitor o monitora informará al grupo de cómo se va a realizar la actividad, y las normas y/o posibles restricciones que se aplican.

Se evitarán aquellas formas de saludo y/o despedida que impliquen contacto físico.

Cada participante traerá su mascarilla de casa y el monitor o monitora controlará comportamientos e indicará en qué momentos es necesaria la mascarilla según los términos que establezcan las recomendaciones vigentes de las autoridades sanitarias.

Se desarrollará una propuesta clara de medidas disciplinarias en caso de incumplimiento, y teniendo en cuenta la situación sanitaria y la gravedad de la misma, quien no cumpla con las medidas necesarias, será expulsado automáticamente de “Bizilabe”.

Deberá evitarse en la medida de lo posible, el uso de materiales compartidos durante la actividad, en caso de que así sea, se aumentarán las medidas de precaución, desinfectándolos cada uso.

Tras la actividad

Los materiales de protección utilizados (mascarillas) se desecharán en las papeleras especiales para ello.

“Bizilabe” iraun bitartean:

Begiraleek zainduko dute jarduera segurua dela; horretarako, osasun-adierazpena egingo dute instalazioetan sartu aurretik, eta ezarritako segurtasun-protokolo eta neurri guztiak behar bezala beteko dituzte.

Begiraleak ezarrita dauden prebentzio-neurriak gogora ekarriko ditu eta hauek betetzeko eskatuko du denon ongizatearen eta segurtasunaren mesedetan (ezer ez ukitzen saiatzea, segurtasun-tartea gordetzea, maskara erabiltzea, eskuak maiz garbitzea, etab.); horrezaz gain, instalazioak nola erabili ere gogoraraziko die.

Begiraleak jarduera nola egingo duten, eta zer arau eta/edo muga aplikatuko diren jakinaraziko die taldekideei.

Kontaktu fisikoa tarteko duten agurtzeko eta/edo adio egiteko moduak eragotziko dira.

Parte hartzaile bakoitzak ekarriko du bere maskara etxetik eta begiraleak kontrolatuko ditu portaerak eta adieraziko du noiz jarri, osasun-alorreko agintariek emandako gomendioetan (unean-unean indarrean daudenak) adierazi bezala.

Diziplinazko neurrien proposamen argia garatuko da eta ez-betetzeren bat gertatuz gero, osasun-egoera eta haren larritasuna kontuan hartuta, beharrezko neurriak betetzen ez dituena automatikoki "Bizilabe" -tik kanporatuko da.

Ahal den neurrian, jardueran zehar partekatutako materialak erabiltzea saihestu beharko da, ezinezkoa bada, arreta-neurriak areagotuz eta erabilera bakoitza desinfektatuz.

Jarduera amaitutakoan

Babesteko erabilitako materiala (maskarak) beren beregi jarritako paperontzietan botako dira.

| | |
|---|---|
| Se reducirá en lo posible, el contacto personal en las gestiones post-actividad fomentando la comunicación telemática.<br><br>**Equipamientos básicos de seguridad e higiene para participantes, monitores, monitoras y profesionales**.<br><br>Se proveerá de suficiente suministro de los equipamientos higiénicos básicos en sus instalaciones antes de su apertura para su uso por parte de las personas usuarias y empleadas.<br><br><u>Productos necesarios para poder seguir las recomendaciones de higiene individuales</u><br><br>Mascarillas para monitores, monitoras y participantes. Los monitores, monitoras y participantes deberán contar con mascarillas limpias en los términos que establezcan las autoridades sanitarias. Si las personas participantes no pueden asegurar este suministro, lo asumirá la organización.<br><br>Las instalaciones estarán equipadas de baños con agua y jabón. Asimismo, en espacios de actividad y lugares estratégicos se pondrá a disposición gel hidroalcohólico.<br><br>También se pondrán a disposición pañuelos desechables en espacios comunes y de actividad.<br><br>En las instalaciones también habrá material de limpieza para poder acometer las tareas de higienización diaria reforzada.<br><br><u>Material de reserva</u><br><br>La empresa que realizará el servicio, contará con mascarillas de uso general de repuesto para las personas participantes previstas y sus monitores y monitoras. También con mascarillas y equipos EPI indicados para profesionales de limpieza y casos de contagio. Todo ello en los términos establecidos por las autoridades sanitarias.<br><br>Se mantendrá un aprovisionamiento suficiente del material de limpieza para poder acometer las tareas de higienización reforzada a diario. | Jardueraren osteko kudeaketetan, pertsonen artean ahalik eta kontaktu gutxien egongo da eta jakinarazpenak telematikoki egitea bultzatuko da.<br><br>**Segurtasuneko eta higieneko oinarrizko ekipamenduak, parte-hartzaileentzat, begiraleentzat eta profesionalentzat.**<br><br>Instalazioetan higienerako oinarrizko behar beste ekipamendua ziurtatuko du ateak zabaldu aurretik, erabiltzaileek eta langileek erabil ditzaten.<br><br><u>Norberaren higienerako gomendioak bete ahal izateko beharrezko produktuak</u><br><br>Maskarak begiraleentzat eta parte-hartzaileentzat. Begiraleek eta parte-hartzaileek maskara garbiak eduki behar dituzte, osasun-alorreko agintariek adierazitakoaren arabera. Parte-hartzaileek ezin badute maskara izango dutela ziurtatu, elkarteak edo erakundeak hartu beharko du bere gain maskaren hornidura.<br><br>Instalazioek komunak izango dituzte xaboia eta urarekin. Halaber, jarduera gauzatuko den eremuetan eta leku estrategikoetan, gel hidroalkoholikoa jarriko da.<br><br>Halaber, erabilera bakarreko zapiak jarriko dira espazio komunetan eta jarduera gauzatuko den eremuetan.<br><br>Instalazioetan, garbiketarako materiala egongo da, ugaritutako eguneroko higiene-egitekoak gauzatu ahal izateko<br><br><u>Materiala erreserban</u><br><br>Zerbitzuak emango duen enpresak erabilera orokorreko maskarak eduki behar ditu aldatzeko, aurreikusitako parte-hartzaileentzat eta haien begiraleentzat. Garbitasuneko profesionalentzako eta kutsatze-kasuetarako gomendatutako maskarak eta norbera babesteko ekipamendua ere eduki behar ditu. Hori guztia osasun-alorreko agintariek adierazita bezala.<br><br>Garbitasuneko behar beste material izan behar dute, ugaritutako eguneroko higiene-egitekoak gauzatu ahal izateko. |

**PREBENTZIORAKO ETA JARDUTEKO PROTOKOLOA, COVID-19 GAITZAREKIN KUTSATZEKO ARRISKUA DAGOENEAN EDO KUTSATUTAKOAN**

PROTOCOLO DE PREVENCIÓN Y ACTUACIÓN EN CASO DE CONTAGIO O DE CONTAGIO POSITIVO POR COVID-19

| **MEDIDAS DE PREVENCIÓN** | **PREBENTZIO-NEURRIAK** |
|---|---|
| Medidas de control al acceso a la actividad: autoexclusión y vigilancia activa de síntomas entre participantes y profesionales | Kontrol-neurriak, jarduerari ekitean: nork bere burua kanpoan uztea, eta sintomen zaintza aktiboa parte-hartzaileen eta profesionalen artean |
| La persona participante no debe acudir y no puede tomar parte en la actividad si presenta cualquier sintomatología que pudiera estar asociada con el COVID-19, (fiebre, tos, sensación de falta de aire, odinogafia, anosmia, ageusia, dolores musculares, diarreas, dolor torácico o cefaleas). | Parte-hartzaileak ez du bertaratu behar edo ezin du jardueran parte hartu COVID-19 gaitzarekin zerikusia izan dezakeen edozein sintoma sumatzen badu (sukarra, eztula, airea falta delako sentsazioa, odinofagia, anosmia, ageusia, giharretako mina edo zefaleak). |
| La persona participante no acudirá y no tomará parte en la actividad si ha estado en contacto estrecho (convivientes, familiares y personas que hayan estado en el mismo lugar que una persona afectada por el COVID-19 mientras presentaba síntomas a una distancia menor de 2 metros durante un tiempo de al menos 15 minutos) o compartido espacio sin guardar la distancia interpersonal con una persona afectada por el COVID-19, incluso en ausencia de síntomas, por un espacio de al menos 14 días. Durante ese periodo debe realizar un seguimiento por si aparecen signos de la enfermedad. | Parte-hartzailea ez da bertaratuko edo ezin izango du jardueran parte hartu gutxienez 14 egunez, COVID-19 gaitza izan duen pertsona batekin hurbileko kontaktua izan badu pertsona horrek sintomak zituen bitartean (bizikideak, familiakoak edo leku berean gutxienez 15 minutuz 2 metroko tartera baino gutxiagora egon diren pertsonak) edo pertsona harekin espazio berean pertsonen arteko distantzia gorde gabe egon bada, nahiz eta sintomarik ez eduki. 14 eguneko epealdi horretan, jarraipena egin behar da, gaixotasunaren zantzuak agertzen diren zaintzeko. |
| La persona participante sí podrá, bajo su propia responsabilidad, tomar parte en la actividad si es vulnerable o convive con una persona que sea vulnerable por: edad, por estar embarazada o por padecer afecciones médicas anteriores (como, por ejemplo, hipertensión arterial, enfermedades cardiovasculares, diabetes, pulmonares crónicas, cáncer o inmunodepresión). | Parte-hartzaileak jardueran parte hartu ahal izango du, bere erantzukizunpean, zaurgarria bada edo zaurgarria den pertsona batekin bizi bada (adinagatik, haurdun egoteagatik edo lehendik gaitzen bat edukitzeagatik) edo aurretiazko gaixotasunik badu (hala nola, hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoa, minbizia edo immunoeskasia). |
| Medidas de prevención de la transmisión. | Transmisioa prebenitzeko neurriak. |
| Las personas participantes o sus tutoras se responsabilizarán de su situación particular frente al COVID-19. | Parte-hartzaileek edo haien legezko tutoreek izango dute COVID-19 gaitzarekiko norberaren egoeraren erantzukizuna. |

| | |
|---|---|
| Se ha enseñado, fomentado y reforzado las prácticas de higiene saludables entre todo el personal y las personas participantes, se ha facilitado información suficiente sobre las medidas establecidas de seguridad, comportamiento e higiene, así como las directrices que deberá cumplir el usuario dentro la instalación, para anticipar de antemano el conocimiento y la práctica de estas pautas.<br><br>Las personas responsables de la actividad velarán por la seguridad de la actividad mediante el adecuado cumplimiento de todos los protocolos y normas de seguridad establecidos.<br><br>Se intensificarán las tareas de limpieza y desinfección, siguiendo las recomendaciones de las autoridades competentes en materia de higiene y salud en el trabajo. Se implementará señalización con las medidas de higiene y prevención por las instalaciones para su conocimiento general.<br><br>**ACTUACION FRENTE A CASO CONFIRMADO DE COVID-19 EN LA ACTIVIDAD**<br><br>Antes de la realización de BIZILABE, en el momento de inscribirse, se facilitará un documento de compromiso personal con las medidas de seguridad e higiene donde las familias son responsables de sus condiciones de salud y del respeto de las normas de higiene y prevención, y que bajo ningún concepto se ha de acudir con síntomas o malestar a las actividades.<br><br><u>Actuación en el caso de que algún participante presente síntomas de caso sospechoso de COVID-19</u><br><br>En la situación actual de transmisión comunitaria por la que estamos pasando se ha de tener en cuenta que todas las personas con síntomas compatibles son posibles casos de COVID-19. La identificación se producirá mediante observación o notificaciones por parte de las personas participantes. Cuando una persona participante presente síntomas compatibles con COVID-19 o estos sean detectados por alguien del monitorado durante la actividad, se le llevará a una sala para uso individual, que cuenta con ventilación adecuada y con una papelera de pedal con bolsa, donde tirar la mascarilla y pañuelos desechables. | Higiene-jardunbide osasungarriak irakatsi, sustatu eta indartu dira, langile eta parte-hartzaile guztien artean. Zer neurri ezarri diren segurtasunaren, jokabidearen eta higienearen alorrean, bai eta erabiltzaileek zer jarraibide beteko dituzten instalazio barruan ere jakinarazi dira. Hartara, aldez aurretik egongo dira arau horien jakinaren gainean.<br><br>Jardueraren arduradunek zainduko dute jarduera segurua dela; horretarako, ezarritako segur- tasun-protokolo eta neurri guztiak behar bezala beteko dituzte.<br><br>Garbiketako eta desinfektatzeko egitekoak ugarituko dira, laneko higienearen eta osasunaren alorreko agintari eskudunek emandako gomendioak betez. Instalazioetan higieneko eta prebentzioko neurrien seinaleak jarriko dira.<br><br>**JARDUKETA, COVID 19 GAITZAREN KASU POSITIBOREN BAT ANTZEMANEZ GERO EGIN BEHARREKOA**<br><br>BIZILABE programa hasi baino lehenago, izena emateerakoan, norberaren konpromisoa segurtasuneko eta higieneko neurriekiko dokumentua helaraziko zaio familiari, non gogorarazten zaien, nork bere osasunaren erantzukizuna duela eta higieneko eta prebentzioko neurriak errespetatu behar dituztela, eta ez dutela jardueretan parte hartzera joan behar inola ere, baldin eta sintomak edo ondoezak badituzte.<br><br><u>Jarduketa, parte-hartzaileren batek COVID-19 gaitzaren sintomak izan daitezkeenak baldin baditu</u><br><br>Transmisio komunitarioko egoeran gaudenez, oso kontuan hartu behar da COVID-19 kasuak izan daitezkeela gaitzarekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsona guztiak. Halako kasuak behaketa bidez identifikatuko dira edo parte-hartzaileek beraiek jakinarazita. Parte-hartzaile batek COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituenean edo jardueran zehar langile batek sintoma horiek detektatzen dituenean, bakarkako gela batera eramango da, aireztapen egokia eta poltsadun pedalezko paperontzi bat dituena. Bertan botako dira erabili eta botatzeko |

| | |
|---|---|
| Asimismo se facilitará una mascarilla quirúrgica para la persona participante y otra para la persona adulta que cuide de ella, se avisará a la familia, persona tutora o allegada correspondiente en cada caso y se pondrá en marcha el contacto con el centro de salud más cercano, para que se evalúe su caso. Según la Estrategia de diagnóstico, vigilancia y control en la fase de transición de la pandemia de COVID-19, debe ser su equipo de Atención Primaria de referencia quien realice la valoración clínica y la solicitud de pruebas diagnósticas para confirmarlo, notificarlo, hacer el seguimiento clínico del caso, así como iniciar el estudio de contactos (en colaboración con los Servicios de Salud Pública según el marco organizativo). En el caso de personal trabajador se contactará con su equipo de Atención Primaria de referencia, y con el Servicio de Prevención de Riesgos Laborales y se seguirán sus instrucciones. | maskara eta zapiak. Era berean, parte-hartzaileari maskara kirurgiko bat emango zaio, eta beste bat zaintzen duen pertsona helduari. Kasu bakoitzean dagokion familiari, tutoreari edo hurbilekoari jakinaraziko zaio eta hurbileneko kontsultategiarekin harremanetan jarriko gara. dispositibo hori argi eta garbi ezarrita egon behar da prozeduran (osasun-zentroa edo larrialdietako erreferentzia-telefonoa), kasua ebaluatu ahal izateko. COVID-19 pandemiaren trantsizio-fasean diagnostikoa, zaintza eta kontrola egiteko estrategiaren arabera, hari dagokion lehen mailako arretako taldeak egin behar dio balorazio klinikoa eta eskatu behar du proba diagnostikoa egitea, kasua baieztatzeko, jakinarazteko eta jarraipen klinikoa egiteko, bai eta haren kontaktuak aztertzen hasteko ere (Osasun Publikoaren Zerbitzuarekin elkarlanean, antolaketa-esparruaren arabera). Langileren batek sintomak baditu, hari dagokion Lehen Mailako Arretako taldearekin jarri behar da harremanetan, bere hiriko erreferentziazko telefonoaren bidez eta/edo Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren bidez, eta haiek emandako jarraibideak beteko dira. |
| Corresponde a los servicios de Salud Pública, en coordinación con Atención Primaria y los Servicios de Prevención de Riesgos Laborales cuando sean personas trabajadoras, organizar el estudio de contacto de los casos positivos identificados. | Osasun Publikoaren Zerbitzuari dagokio, Lehen Mailako Arretarekin eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin elkarlanean, langilea bada, hautemandako kasu positiboen kontaktuen azterketa antolatzea. |
| Tras la identificación positiva de caso de COVID-19, se podrán en marcha las recomendaciones de las autoridades sanitarias. | COVID-19aren kasu positiboa identifikatu ondoren, une oro beteko dira osasun-alorreko agintarien gomendioak. |
| El manejo de casos y contactos entre participantes y profesionales se debe realizar según lo indicado en el documento de Estrategia vigilancia y control. No corresponde al monitorado, realizar ni el estudio de contactos ni la valoración de suspensión de actividad. Sí se recomienda que faciliten y colaboren en el trabajo que las autoridades sanitarias les soliciten. En su caso, se coordinará el regreso de las personas participantes a sus domicilios y se implementarán estrategias para dar continuidad a las actividades evaluando alternativas. | Kasuen eta parte-hartzaileen eta profesionalen arteko kontaktuen kudeaketa egiteko, zaintza- eta kontrol-estrategiaren dokumentuan jasotakoa beteko da. Ez dagokie aisialdiko profesionalei, ez kontaktuen azterketa egitea, ez jarduera bertan behera utzi edo ez baloratzea. Gomendatzen da, ordea, osasun-alorreko agintariek eskatutako zereginetan laguntzea eta lana erraztea. Beharrezkoa izanez gero, parte-hartzaileen etxerako itzulera koordinatuko da, eta jarduerak egiten jarraitzeko estrategiak abiaraziko dira, beste aukera batzuk aztertuta. |

**NORBANAKOEN HIGIENE ETA PREBENTZIORAKO**

**DERRIGORREZKO NEURRIAK**

MEDIDAS PERSONALES DE HIGIENE Y PREVENCIÓN OBLIGATORIAS

| **1. No debes acudir a la actividad, si...** | **1. Ez duzu jarduerara joan beharko...** |
|---|---|
| • Si presentas cualquier sintomatología (tos, fiebre, dificultad al respirar, etc.) que pudiera estar asociada con el COVID-19. En este caso, tienes que contactar con tu centro de atención primaria y seguir sus instrucciones. No debes acudir a lugares donde se encuentren más personas hasta que te confirmen que no hay riesgo para ti o para los demás.<br><br>• Si has estado en contacto estrecho (convivientes, familiares y personas que hayan estado en el mismo lugar que un caso mientras el caso presentaba síntomas a una distancia menor de 2 metros durante un tiempo de al menos 15 minutos) o has compartido espacio sin guardar la distancia interpersonal con una persona afectada por el COVID-19. En este caso debes realizar un seguimiento por si aparecen signos de la enfermedad durante 14 días.<br><br>• Puedes participar, bajo tu responsabilidad, si eres vulnerable o convives con una persona que sea vulnerable por edad, por estar embarazada o por padecer afecciones médicas anteriores (como, por ejemplo, hipertensión arterial, enfermedades cardiovasculares, diabetes, enfermedades pulmonares crónicas, cáncer o inmunodepresión). Pero esto puede suponer un grave riesgo para ti o para las personas con las que vives. | • COVID-19rekin zerikusia duen sintomaren bat baduzu (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasunak). Kasu honetan, zure lehen mailako arretako zentroarekin harremanetan jarri eta haren jarraibideak bete behar dituzu. Ez joan pertsona gehiago dauden lekuetara, zuretzat edo besteentzat arriskurik ez dagoela baieztatu arte.<br><br>• Harreman estua izan baduzu (bizikideak, senideak eta kasua leku berean egonak, kasuak 2m baino distantzia txikiagoko sintomak zituen bitartean, gutxienez 15 minutuz) edo COVID-19 zuen pertsona batekin egon bazara pertsonen arteko distantzia gorde barik. Kasu honetan, gaixotasunaren zantzurik agertzen den jakiteko 14 egunez jarraipen bat egin beharko duzu.<br><br>• Parte har dezakezu, zure erantzukizunpean, adinagatik, haurdun egoteagatik edo lehenagoko afekzio medikoak izateagatik kaltebera den pertsona batekin bizi bazara (adibidez, hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia edo immunodepresioa). Baina hori, arrisku larria izan daiteke zuretzat edo zurekin bizi diren pertsonentzat. |
| **2. Desplazamientos a la actividad**<br><br>• Siempre que puedas, prioriza las opciones de movilidad que mejor garanticen la distancia interpersonal de aproximadamente 2 metros. Por esta razón, es preferible en esta situación el transporte individual. | **2. Jarduerarako joan-etorriak**<br><br>• Ahal duzun guztietan, lehentasuna eman pertsonen arteko 2 metro inguruko distantzia ondoen bermatzen duten mugikortasun-aukerei. Horregatik, egoera honetan hobe da banakako garraioa. |

- Si te tienes que desplazar en un turismo, extrema las medidas de limpieza del vehículo y evita que viaje más de una persona por cada fila de asientos manteniendo la mayor distancia posible entre los ocupantes.
- Utiliza tu mascarilla desde la salida de casa.

**3. Normas de prevención e higiene para monitores, monitoras y participantes de la actividad**

- Las personas participantes llevarán a cabo todas sus actividades en grupos aislados, de un máximo establecido en cada momento, y supervisados en todo momento por un monitor o monitora, que dictará y velará por el cumplimiento de las medidas higiénicas y de seguridad.
- Los monitores y participantes deberán contar con 2 mascarillas limpias por día.
- En lo posible se respetará la distancia de seguridad interpersonal de 2 metros; el uso de mascarillas será obligatorio siempre en lugares cerrados, y en los abiertos (cumpliendo la ley actual en cada momento).
- Lavar frecuentemente las manos con agua y jabón, o con una solución hidroalcohólica, durante 40 segundos. Es especialmente importante después de toser o estornudar, o al inicio y fin de actividades en espacios compartidos. En el caso de que tener los antebrazos descubiertos durante la actividad, es recomendable incluir el lavado de antebrazos.
- Cubrirse la nariz y la boca con un pañuelo desechable al toser y estornudar, y desecharlo a continuación a un cubo de basura que cuente con cierre. Si no se dispone de pañuelos emplear la parte interna del codo para no contaminar las manos.
- Evitar tocar los ojos, la nariz o la boca. Evitar el saludo con contacto físico.

- Auto batean mugitu behar baduzu, ibilgailua garbitzeko neurriak zorroztu, eta ez bidaiatu pertsona bat baino gehiagok eserleku-ilara bakoitzean, bidaiarien artean ahalik eta distantziarik handiena mantenduz.
- Etxetik bertatik jantzi musukoa.

**3. Begirale eta partaideentzako prebentzio eta higiene neurriak**

- Parte-hartzaileek unean uneko kopuruak errespetatuz osatutako talde isolatuetan egingo dituzte jarduera guztiak eta begirale batek gainbegiratuko ditu une oro. Begirale horrek higiene- eta segurtasun-neurriak hartu eta betetzen direla zainduko du.
- Begiraleek, bi musuko garbi izango beharko dute eguneko.
- Ahal den guztietan, pertsonen arteko 2 metroko segurtasun-distantzia errespetatuko da; musukoak nahitaez erabili beharko dira leku itxietan, eta leku irekietan (unean uneko legea betez).
- Eskuak maiz garbitu beharko dituzte ura eta xaboia erabiliz, edo soluzio hidroalkoholiko bat, 40 segundoz. Bereziki garrantzitsua da eztul edo dominististiku egin ondoren, edo espazio partekatuetako jardueren hasieran eta amaieran. Besaurreak agerian edukiz gero jardueran,gomendagarria da besaurreak garbitzea.
- Estali sudurra eta ahoa eztul eta dominististiku egitean botatzeko zapi bat erabiliz. Ondoren, bota itxitura duen zabor-ontzi batera. Zapirik ez badago, erabili ukondoaren barrualdea eskuak ez kutsatzeko.
- Ez ukitu begiak, sudurra edo ahoa. Agur esatean ere, saihestu harreman fisikoa.

| | |
|---|---|
| • Se recomienda que los pañuelos desechables que el personal emplee para el secado de manos sean desechados en papeleras o contenedores protegidos con tapa y, a ser posible, accionados por pedal.<br><br>• Las mascarillas, una vez utilizadas, deberán depositarse en la fracción resto.<br><br>• Si se empieza a notar síntomas, extremar las precauciones tanto de distanciamiento social como de higiene y avisar a las personas responsables de la actividad para que contacten de inmediato con los servicios sanitarios. | • Komeni da langileek eskuak lehortzeko erabiltzen dituzten erabili eta botatzeko zapiak, paperontzietan edo estalkiz babestutako edukiontzietan botatzea eta, ahal bada, pedalak eragitea.<br><br>• Musukoak erabili ondoren, gainerakoen frakzioan utzi beharko dira.<br><br>• Sintomak nabaritzen hasiz gero, pertsonen arteko distantzia eta higiene neurriak zorroztu eta jardueraren arduradunei jakinarazi, osasun-zerbitzuekin harremanetan jartzeko ahalik eta arinen. |